

# 2020ko “Vianako Printzea” Kulturaren Saria

Carlos Cánovas Ciáurriz  
jaunari emateko ekitaldia



Erriberri. 2020ko irailak 19, 12 h

*“Vianako Pr*

# Ekitaldien programa

Teobaldoen plazan izanen da ekitaldia.

Lehendakaritzako oholtzan, Vianako Printzearen estandarte gaineke dutela, ezker aldean eseriko dira: Nafarroako Foru Komunitateko Lehendakaria, María Chivite; Nafarroako Parlamentuko Lehendakaria, Unai Hualde, eta Erriberriko alkatea Maite Garbayo. Eskuinertara, berriz, Carlos Cánovas, aurtengo saritua; Kultura, Kirol eta Gazteriako kontseilaria, Rebeca Esnaola, Nafarroako Kulturaren eta Arteen Kontseiluko buru den partez; eta Javier Torrens, Nafar Ateneoaren burua, erakunde horrek proposatu baitu Carlos Cánovas sari hone-tarako hautagai.

Ekitaldia honela garatuko da:

- Nafarroaren himnoa, *Erreinuaren sarrerarako martxa*, Nafarroako Orkestra Sinfonikoaren metal boskoteak joa
- Javier Torrens Alzu, Ateneo Navarro / Nafar Ateneoko buruaren hitzak, Carlos Cánovas Ciurrizek bere dituen merezimenduen gainean.
- Musika entzunaldia. Paul Dukasen (1865-1935) “*La Péri*” balletarako *fanfarria* Nafarroako Orkestra Sinfonikoaren metal boskoteak joa.
- Nafarroako Foru Komunitateko Lehendakariak saria eskuratuko dio Carlos Cánovas Ciurriz jaunari
- Sarituaren esker onezko hitzak
- Musika entzunaldia, Aritz *adarrean*, Koldo Pastorren (1947) maitasun kanta, Nafarroako Orkestra Sinfonikoaren metal boskoteak joa.

“*Intze*” Saria

- Nafarroako Foru Komunitateko Lehendakariak hartuko du hitza.
- Musika entzunaldia, *Basse Danse Bergeret*, Berpizkundeko dantza Tylman Susatorena (c.1510-1570), Nafarroako Orkestra Sinfonikoaren metal boskoteak joa.

“*Vianako Pr*”

# Vianako Printzea Saria

Vianako Printzea Saria Nafarroako Gobernuak sortu zuen 1990ean eta urtero ematen da, Nafarroako Kultura Kontseiluak, kultur gaietan Gobernuari aholku emateko organoak proposaturik.

Sariaren helburua da pertsonak, taldeek nahiz instituzioek kulturaren edozein arlotan egindako lanari aitormena ematea, dela sorketan, ikasketan edo ikerketan, dela kultura bultzatu eta sustatzen. Sariak bereziki kultura jardunaren edozein arlotako lan jarraikiei eta ibilbide esanguratsuei eman nahi die aitormena.

Nafarroako Gobernuak, orain arte, honako Vianako Printzea Kultura Sariak eman ditu:

- 1990 José Goñi Gaztambide, historialaria.
- 1991 Eugenio Asensio Barbarin, hispanista.
- 1992 Iruñeko Orfeoia.
- 1993 Rafael Moneo Vallés, arkitektoa.
- 1994 Francisco Ynduráin Hernández, filologoa.
- 1995 Julio Caro Baroja, antropologoa.
- 1996 Pablo Antoñana Chasco, idazlea.
- 1997 Pedro Miguel Echenique Landiribar, fisikaria.
- 1998 Montxo Armendáriz Barrios, zine zuzendaria.
- 1999 Álvaro d'Ors Pérez Peix, Erromatar Zuzenbideko katedratikoa.
- 2000 Concepción García Gaínza, Artearen Historiako katedratikoa.
- 2001 Miguel Sánchez-Ostiz Gutiérrez, idazlea.
- 2002 María Bayo Jiménez, sopranoa.
- 2003 Juan José Aquerreta Maestu, pintorea.
- 2004 Fernando Redón Huici, arkitektoa.

Printzea” Saria

- 2005 Javier Manterola Armisén, ingeniaria.
- 2006 Javier Tejada Palacios, zientifikoa.
- 2007 Pedro Iturralde Ochoa, musikaria.
- 2008 Alfredo Landa Areta, aktorea.
- 2009 Agustín González Acilu, konpositorea.
- 2010 Jürgen Untermann, hizkuntzalaria.
- 2011 Faustino Menéndez Pidal de Navascués, historialaria.
- 2012 Antonio López García, pintore eta eskultorea.
- 2013 Daniel Innerarity Grau, filosofoa.
- 2014 Tarsicio de Azcona, historialaria.
- 2015 Ramón Andrés González-Cobo, musikologoa.
- 2016 Ignacio Aranguren Gallués, teatro irakasle eta zuzendaria.
- 2017 José Lainez eta Concha Martínez, dantzariak eta koreografoak.
- 2018 Iruñeko Ganbera Abesbatza.
- 2019 Tomás Yerro Villanueva, idazle eta irakaslea.

“Vianako Pr

# Carlos Cánovas Ciáurriz

Haren ibilbide luze gogoangarrian hainbat mugarri daude: teoriaren arloan, argazkilari askoren gaineko testuak, argazkilariek berek enkargatuta nahiz hainbat kultur erakundek eskatuta idatziak; irakaskuntzan, nazioarteko argazki egile eta mugimenduen gaineko eskolak eta ikastaro monografikoak; teknikaren arloan, argazkilari askorekin egindako elkarlana haien lanak ontzeko, eta haren argitalpenen artean, “Navarra, fotografía” liburua dugu, 2012an Nafarroako Gobernuak argitaratua, ezin utzizko erreferentzia baita gure errealtatea ezagutu nahi duenarentzat.

Hori guztia garrantzi handikoa delarik, azpimarratu nahi dugu Carlos Cánovasen pertsonak esangura berezia duela sortzailea den aldetik.

Hirurogeiko hamarkadan lehenbiziko argazkiak egin zituenetik argiro zehazturik zeuzkan bere bokazioa eta bere interes estetikoak. Argazki haietan aurkitzen den begiradak soseguz eta talentuz finkatzen ditu jeneralean oharkabean gelditzen diren hiri inguruak, eta hainbateko duintasuna ematen die non ezaxolatik salbatu eta edertu egiten dituen.

Hasiera-hasieratik haren lanak teknika eta edukizko eskakizun izugarria izan du gidari eta horri esker orain dela 40 urteko argazkiak interesik edo gaurkotasunik galdu gabe iritsi dira gaurdaino.

Ez dira inondik denbora jakin baten kronika, baizik eta artista apart baten begirada sentikorra, bere ingurua soseguz eta jakituriaz harakatzeko duena.

Esangura handikoak dira bere serieen izenburuak: “Extramuros”, “Paisaia anonimoa”, “Ahazturarako loreak”, “Paisaia iheskorak”, “landare minduak”, eta abar.

Bereziki “Zazpigarren zerua” hartu nahi genuke aintzat, zeinaren titulua asmo deklarazio garbia den. Bertan, etxetik gertu daukan

“Aintza” Sarria

paisaiaren argazkiak egiten ditu, pixkanaka, haraino kamaraz tripodez eta abarrek kargaturik etorrira, ondoren, presarik gabe eta eguneroko bizitzak ekartzen dizkion sentipenei adi, argiro jasotzen du bera “zazpigarren zeruan” bizi dela, bizitza berak nahi duen tokian dagoela eta gerok geure kemen eta adimenez eraikitzeko gai garena beste paradisuurik ez dela.

Eta jarrera horrekin oparitzen digu artistak bere mundu ikuskera, lehen ikusten genuena zabaltzen, begiradak hartzen dizkion toki guztiak interesgarriago bihurtzen, eta bere ezagutza handiagotzean, gurea ere handiagotzen du.

“Vianako Pr



**52/2020 FORU DEKRETUA,**  
**abuztuaren 1eko, zeinaren**  
**bidez xedatzen baita**  
**Carlos Cánovas Ciáurriz jaunari ematea**  
**2020. urteko Vianako Printzea Kulturaren Saria.**

Nafarroako Gobernuak sortu zuen, 1990an, Vianako Printzea Kulturaren Saria, eta haren helburua da aintzat hartzea kulturaren edozein arlotan pertsona edo erakunde nabarmenek egindako lana, dela sorkuntzan, ikaskuntzan edo ikerkuntzan, dela kultura hedatu eta sustatzeko lanetan.

Nafarroako Kulturaren eta Arteen Kontseiluak erabaki du Nafarroako Gobernuari proposatzea Carlos Cánovas Ciáurriz jaunari eman diezaiola 2020. urteko Vianako Printzea Kulturaren Saria, egin dituen merezimendu nabarmenengatik.

Carlos Cánovas Ciáurriz (Hellín –Albacete– 1951) artista estatuan nahiz nazioartean da ezaguna eta miretsia, eta azken urte hauetan argazkigintza artistikoa nabarmen berritzen aritu da.

Argazkigintzaren arloan, bere lan propioa eta berezia garatu du, aski zabala, eta haren bidez paisaiari buruz hausnartu du. Lan hori zenbait museo eta arte zentrotan erakusgai izan da, Nafarroan, estatuan nahiz nazioartean; askotan, obra iraunkor gisa. Bere ikuspegi propioaren emaitza da bere lana, eta, hartan, irudikatzen den horren esentzia bilatzen du, lortzarren errealitate bat ezagutzeko modukoa eta ohiz kanpokoa dena, biak aldi berean. Bere lan nabarmenen artean, aipatu behar dira “Extramuros”, “Paisaje anónimo”, “Plantas dolientes”, “Vida secreta”, “Paisaje sin retorno”, “A propósito” eta “Séptimo cielo”.

Gainera, sustatzaile eta komisario ere izan da hainbat erakusketatan (banakakoak nahiz taldekakoak), eta, hori dela eta, ezagutzaren funtsezko dinamizatzaile bilakatu da argazkigintzako askotariko joera, proiektu eta gaiei dagokienez.

Hainbat lan egin ditu; besteak beste, adierazpen teorikoak, dibulgiokoak, pedagogikoak, edizio lanak, zaharberritzeak, legatu ondarea kontserbatzeko lanak, eta argazkigintzaren historia, oinarri harturik

*Printzea” Saria*

argazkigintza dela teknika, kultura-bide eta adierazpen artistiko garaikide bat.

Cánovasek hainbat ikastaro eta tailer eman ditu Nafarroan, bere ezagutza praktikoa eta teorikoa zabalduz, eta, gainera, beste toki askotan ere egon da; horrela argazkilari askoren maisu eta gidari izan da, argazkigintzan hasten lagundu baitie askori, hainbat urtez, baita askotariko laguntza, orientabideak eta aholkuak eman ere.

Zenbait libururen egilea da, zeinetan biltzen baita bere lan pertsonala, eta argazkigintzaren historiari buruzko lanak ere argitaratu ditu. Nafarroako Kultura Kontseiluko kide izan zen (1983-1986), eta Coruñaako Arte Garaikidearen Museoko aholkulari ere, arte garaikidearen bildumari dagokionez (2007-2017). Halaber, argazkigintzako irakasle izan da Nafarroako Unibertsitate Publikoan (2000-2015), ikastaroak eta tailerrak eman ditu, eta argazkigintzari buruzko artikuluak editatu ditu hainbat argitalpen espezializatutan eta komunikabide-tan.

Horiek horrela, Nafarroako Gobernuak, Nafarroako Kulturaren eta Arteen Kontseiluaren proposamena ikusita, bidezkoztat jo du hari ematea 2020. urteko Vianako Printzea Kulturaren Saria.

Horrenbestez, Kultura eta Kiroleko kontseilariak proposaturik, eta Nafarroako Gobernuak 2020ko abuztuaren 1ean egindako bilkuran harturiko Erabakiarekin bat,

“Vianako Printzea”

DEKRETATZEN DUT:

1. Carlos Cánovas Ciáurriz jaunari ematea 2020ko Vianako Printzea Kulturaren Saria.
2. Foru dekretu hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea eta Carlos Cánovas Ciáurriz jaunari jakinaraztea.

Iruñean, 2020ko abuztuaren 1ean.

**Nafarroako Gobernuko Lehendakaria,**

María Chivite Navascués

**Kultura eta Kiroleko kontseilaria,**

Rebeca Esnaola Bermejo

Printzea” Saria

